


OCW EHU 2013



UPV/EHU

KONTUEN AUDITORIA ARIKETA BILDUMA



Itziar Azkue Irigoyen

AURKIBIDEA

1.	<i>KUTXAKO KONTAKETA (ARKEOA)</i>	1
2.	<i>BANKU BERDINKATZE (KONTZILIAZIO) ARIKETA</i>	3
3.	<i>IZAKINEN BALORAZIO ARIKETA</i>	5
4.	<i>IZAKINEN SALMENTEN BANAKETA ARIKETA</i>	6
5.	<i>HORNITZAILEEI BAIEZTAPENEN ARIKETA</i>	7
6.	<i>IBILGETU MATERIALA: ERAIKUNTZAK</i>	9
7.	<i>TRUKAKETA</i>	11

SALEROSKETA ZIKLOA (EPE LABURRA)

1. KUTXAKO KONTAKETA (ARKEOA)

2014ko urtarrilaren 2an, kutxako kontaketa egin da BAT, SA. enpresan eta ikuskariak bere oharrak hartu ditu. Kontaketan ezagutu den saldoa eta 2013ko abenduaren 31ako egora balantzean enpresak jaso duena berdinak dira.

Enpresako kutxa arduradunak ondorengo zehaztapena eta saldoa aurkeztu du, eurotan:

Zehaztapena	Zenbatekoa
Txanponak	79,30
Paper-dirua	1.075,00
Fakturak (1)	9.774,38
Agiriak (2)	9.767,16
Bestelako ziurtagiriak (3)	3.170,60
Guztira	23.866,44

(1) Fakturen zehaztapena ondokoa da:

	Data	Kontzeptua	Oinarri zergagarria	BEZa %21	Guztira
1.faktura	2013/12/31	Iturgina	842,00	176,82	1.018,82
2.faktura	2013/12/28	Garbiketak	710,00	149,10	859,10
3.faktura	2013/12/30	Bulego materiala	1.052,00	220,92	1.272,92
4.faktura	2013/12/26	Inprimategi gastuak 2013ko propagandagatik	5.474,00	1149,54	6.623,54

(2) Agirietan ondorengo zehazten da:

1. A langileari 6.101 eurotako kreditua eman zitzaion 2012/12/31ean.
2. B langileak 2013/12/31an 480,80 eurotako aurrerakina jaso du, soldataren kontura.
3. Hornitzaile bati 2013/12/31ean 3.185,36 eurotako aurrerakina egin zaio, %21ko BEZ barne.

(3) Bestelako ziurtagiriak:

1. Abenduan 3.050,60 euro lapurtu dituzte eta denuntzia orria dago kutxan.
2. Abenduko loteriaren txartel batzuk 120,00 eurogatik. Ez zen sarituta suertatu.

ESKATZEN DA.

1. Kutxa kontaketa behatu.
2. Doikuntza idazpenak proposatu, akats eta irregulartasunak esanguratsuak direla ondorioztatuz.
3. Enpresaren Kutxa saldoa zein den adierazi.

Oharra: 2013ko abenduaren 31etik 2014ko urtarrilak 2ra bitartean ez da kutxarekin mugimendurik egin.

KUTXAKO KONTAKETA EBAZPENA:

Data: 2014/01/02

Zehaztapena	ENPRESA		AUDITOREA		Azalpenak
	Kutxa	Kutxa	Doitu 2013	Doitu 2014	
Txanponak	79,30	79,30			Ados
Paper-dirua	1.075,00	1.075,00	0,00		Ados
Abenduak fakturak	9.774,38		-9.774,38		(1) (2) (3) (4) Fakturen kontabilizazioa
Agiriak	9.766,52		-9.766,52		(5) (6) (7)
Bestelako ziurtagiriak	3.170,60		-3.170,60		(8)
Guztira urtarrikak 2	23.865,80	1.154,30	(22.711,50)	0,00	Berdinkatzea egiteke dago.

Doikuntza idazpenak:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	622. Konponketa eta kontserbazioa 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa, €	842,00 176,82	1.018,82
2	622. Konponketa eta kontserbazioa 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa, €	710,00 149,10	859,10
3	602. Beste hornikuntzen erosketak 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa, €	1.052,00 220,92	1.272,92
4	629. Propaganda eta publizitatea 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa	5.474,00 1.149,54	6.623,54
5	254. Pertsonalari eman e/L kredituak 570. Kutxa, €	6.101,00	6.101,00
6	460. Langileei aurrerakina 570. Kutxa, €	480,80	480,80
7	407. Hornitzaileei aurrerakina 472. O.P. Jasandako BEZ 570. Kutxa, €	2.632,00 552,72	3.184,72
8	678. Ez-ohiko gastuak 570. Kutxa, €	3.050,60	3.050,60
9	678. Ez-ohiko gastuak 570. Kutxa, €	120,00	120,00
KUTXA BERDINKATZEA: Daten arteko desberdintasunak Kutxa 2013/12/31 = Kutxa 2014/01/02 + ORDAINKETAK - KOBURAK			

Balantzeko saldoaren egiaztapena:

Liburuetakoa saldoa 2013/12/31ean	23.865,80
<u>Doikuntzak</u>	<u>(22.711,50)</u>
Saldo doitua	1.154,30
<u>Saldoa auditorearen iritziz</u>	<u>1.154,30</u>
Diferentzia	0,00

ONDORIOAK: Kontaketa eta berdinkatzea egin ondoren, auditoreak egiaztatu du BAT, SA. enpresan 2013ko abenduaren 31ean Kutxan azaldu behar duen saldoa 1.154,30 € dela. Enpresak auditoreak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoreak ez du salbuespenik aipatuko diruzaintzako arloan.

2. BANKU BERDINKATZE (KONTZILIAZIO) ARIKETA

BI, SA. erakundearen ikuskaritza egitean, 2013ko abenduaren 31ean, Bankuen kontuan enpresak jasotako saldo zorduna 9.100 € dela jakin da eta data berean bankuak bidalitako laburkinaren arabera 6.375 € ko saldo hartzekoduna (bankuarentzat) adierazi da.

Elkarteak ondorengo informazioa luzatu du:

Bankura bidalitako efektu multzoa deskontatzeko, enpresak abenduan kontabilizatu duena eta bankuak aldiz urtarrilean	3.250
Banku zerbitzuengatik komisioak abenduan, enpresak urtarrilean kontabilizatu dituenak	15
Abenduan itzulitako bezero txekea, enpresak kobratutzat jo duena	500
Bankuak abonatu duen diru sarrera enpresak dituen inbertsio batzuk emandako interesengatik, enpresak abenduan oraindik kontabilizatu ez duena	600
Ikuskatutako ekitaldiari dagokion aseguru polizaren ordainketa, bankuak urtarrilean kargatu duena eta enpresak otsailean kontabilizatu duena	800
Banku akats batengatik bankuak bi aldiz kargatu duen faktura	230
Bezeroaren transferentzia abenduan, enpresak urtarrilean kontabilizatu duena	120
Zirkulazioan dauden taloiak (enpresak luzatu dituenak, baina bankuak ordaindu ez dituenak)	1.250
Banku maileguengatik interesak, bankuak zordundu dituenak eta enpresak urtarrilean kontabilizatu dituenak	700

ESKATZEN DA.

1. Banku berdinkatzea (kontziliazioa) prestatu.
2. Doikuntza idazpenak proposatu, akats eta irregulartasunak esanguratsuek direla ondorioztatu.
3. Enpresaren Banku saldoa zein den adierazi.

BANKU BERDINKATZE EBAZPENA:

1. Banku berdinkatzea:

		Saldoa bankuak (laburkina)		6.375,00	doikuntza
Enp. data	B. data				
abendua	urtarrila	+ Enpresa kargua (zordunketa), Bankuak abonatu gabe Bankura bidalitako efektuak deskontatzera GUZTIRA	3.250,00	+ 3.250,00	
urtarrila	abendua	+ Banku kargua (zordunketa), Enpresak abonatu gabe Banku komisioak	15,00		(1)
-	-	Abenduan itzulitako bezero txekea	500,00		(2)
-	abendua	Banku kargu bikoitza	230,00		-
urtarrila	abendua	Banku mailegu interesak GUZTIRA	700,00	+1.445,00	(5)
abendua		- Enpresa abonuak, Bankuak kargatu (zordundu) gabe Zirkulazioan taloiak GUZTIRA	-1.250,00	-1.250,00	
urtarrila	abendua	- Bankuak abonatu, Enpresak kargatu (zordundu gabe) Banku diru sarrera	-600,00		(3)
	abendua	Bezero transferentzia abenduan GUZTIRA	-120,00	-720,00	(4)
		Saldoa enpresa		9.100,00	

2. Doikuntza idazpenak:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	(626) Banku zerbitzuak eta antzekoak (572) Banku eta kreditu erakundeak, €	15,00	15,00
2	(430) Bezeroak (572) Banku eta kreditu erakundeak, €	500,00	500,00
3	(572) Banku eta kreditu erakundeak, € (769) Bestelako sarrera finantzarioak	600,00	600,00
4	(572) Banku eta kreditu erakundeak, € (430) Bezeroak	120,00	120,00
5	(662) Zorren interesak (572) Banku eta kreditu erakundeak, €	700,00	700,00

3. Egiaztapena eta bukaerako saldoa:

Balantzeko saldoa	9.100,00
Doikuntza (1),(2),(3) (4) (5)	<u>-495,00</u>
Saldo doitua= auditorearen iritziz saldoa	8.605,00

ONDORIOAK: Banku berdinkatzea egin ondoren, auditoreak egiaztatu du BI, SA. enpresan 2013ko abenduaren 31ean Bankuan azaldu behar duen saldoa 8.605,00 € dela. Enpresak auditoreak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoreak ez du salbuespenik aipatuko diruzaintzako arloan.

3. IZAKINEN BALORAZIO ARIKETA

HIRU SA. enpresaren Egoera-Balantzea 2012ko abenduaren 31an ondorengo saldoez osatua dago:

Kapitala	105.000	Bezeroak	29.000
Ordenagailu bat	10.200	Erreserba legala	25.000
Bankuak	25.950	Salgaiak (8.000 u, 7 €/u)	56.000
Hornitzaileak	2.000	Gizarte Segurantzza hartzekoduna.	1.150
Epe luzeko hartzeak	24.000	Kreditu erakundeekin e/luze zorrak	12.000

Izakinei dagokienez ondorengo eragiketak burutu dira 2013 ekitaldian:

- 2013-02-15:** ALVAREZ S.L. hornitzaileari 2.000 unitateko salgaien erosketa, kredituz, 12 €/u prezioan. Fakturan ondorengo deskontuak eman dira: erosketa bolumenagatik 3.000 € eta promozio berezi batengatik 3.000 €. Garraio gastuak 1.500 €takoak dira eroslearen kargu, baino hasieran saltzaileak ordaintzen ditu.
- 2013-03-15:** MASTER S.L. enpresari 6.000 unitate saltzen dizkio kredituz, 20 €/u prezioan, bolumenagatik 2 €/unitateko deskontu bat eskainiz. Garraio gastuak 300 €takoak dira eta eroslearen kargura doaz, eta aseguru bat kontratatu da 500 €takoak saltzailearen kargu doana eta ordaintzeke uzten dena.
- 2013-03-17:** MASTER S.L. bezeroak, salgaiak egoera txarrean egoteagatik 2.000 unitate itzultzen dituzte, 18 €/u. Garraio gastuak 80 € saltzailearen kargura, banku transferentzia baten bidez ordaintzen direnak.
- 2013-07-15:** Berriro ALVAREZ S.L. enpresari erosten dio, 4.000 unitate 10 €/u. Bolumenagatik 2.000 €ko deskontu bat eman dute. Garraio gastuak 100 €takoak saltzailearen kargura doaz eta berak ordaintzen ditu.

Enpresaren arabera ekitaldi itxierako salgaien balorazioa 84.200 € da.

ESKATZEN DA: IZAKINEN SALDOA EGIAZTATU.

Oharrak:

- Urte bukaerako izakinen zenbatekoa kalkulatzeko Bataz besteko Prezio Haztatu (BPH) sistema erabiltzen du enpresak.
- 2013-12-30ean inbentario fisikoa egin da eta 9.000 unitate kontatu dira, hau da, 1.000 unitate salgai desagertu dira biltegitik.

IZAKINEN BALORAZIO EBAZPENEA:**BILTEGIA:**

Data	Kontzeptua	SARRERA			IRTEERAK			IZAKINAK		
		Unit	Prezio	Zenbatekoa	Unit	Prezio	Zenbatekoa	Unit	Prezio	Zenbatekoa
Urt. 1	Izakinak	8.000	7,00	56.000,00				8.000	7,00	56.000,00
Ots. 15	Erosketa	2.000	10,50	21.000,00				10.000	7,70	77.000,00
Mar. 15	Salmenta				6.000	7,70	46.200,00	4.000	7,70	30.800,00
Mar. 17	Itzulketa	2.000	7,70	15.400,00				6.000	7,70	46.200,00
Uzt. 15	Erosketa	4.000	9,50	38.000,00				10.000	8,42	84.200,00
Ab. 31	Galdu				1.000	8,42	8.420,00	9.000	8,42	75.780,00

Doikuntza proposamena:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	(610) Salgai izakinen aldaketa (300) Salgaiak	8.420,00	8.420,00

ONDORIOAK: Biltegiko agirien azterketa eta inbentario fisikoa egin ondoren, auditoreak egiaztatu du HIRU, SA. enpresan 2013ko abenduaren 31ean Salgaien saldoa 75.780,00€ dela. Enpresak auditoreak proposatutako doikuntza idazpena burutuz gero, auditoreak ez du salbuespenik aipatuko izakinen arloan.

4. IZAKINEN SALMENTEN BANAKETA ARIKETA

2013 ekitaldian LAU, SA. enpresaren ikuskaritzan diharduzu. Salmenten banaketa egiteko ekitaldi itxiera aurreko eta ondorengo albaranak, fakturak eta biltegiko mugimenduak aztertu dituzu. Bukaerako izakinak inbentario fisikoa eginez ezagutzen dira. Eta ondorengoaz ohartu zara:

- 2013 ekitaldian kontabilizatutako 350 €tako salmenta, izatez bezeroaren aurrerakina dela. Ez da salgaien mugimendu fisikorik eman biltegiari.
- 2014 ekitaldian kontabilizatutako 4.000 €tako salmenta, 2013 ekitaldiko abenduaren 22an biltegitik ateratako salgaiengatik da.
- 2013 ekitaldian kontabilizatutako 2.400 €tako salmenta 2013 ekitaldiko abenduaren 28an biltegitik ateratako salgaiena da (1.700 €tako kostua dutena). Bezeroari urtarrilaren 14an iritsi zaizkio, eta kontratuaren arabera data hau kontsideratzen da salmenta data, bitarteko gastu eta galerak enpresaren kargura izanik (Salmenta irizpidea: helmuga).

ESKATZEN DA: 2013 ekitaldian beharrezko idazpenak proposatu. BEZ %21.

SALMENTAK					AZALPENAK
Eragiketa	ENPRESA	AUDITOREA	SALMENTA	INBENTARIOA	
a)	350,00	-	(350,00)	-	(1)Bezeroa aurrerakina
b)	-	4.000,00	4.000,00	-	(2)Ekitaldiko salmenta
c)	2.400	-	(2.400,00)	1.700,00	(3)2014ko salmenta

Doikuntza idazpen proposamena:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	700. Salgai salmenta 438. Bezeroek emandako aurrerakina	350,00	350,00
2	430. Bezeroak 700. Salgai salmenta 477. O.P. jasanarazitako BEZ	4.840,00	4.000,00 840,00
3	700. Salgai salmenta 477. O.P. jasanarazitako BEZ 430. Bezeroak	2.400,00 504,00	2.904,00
	300. Salgaiak 610. Salgai izakinen aldaketa	1.700,00	1.700,00

ONDORIOAK: Salmenta agirien azterketa eta inbentario fisikoa kontuan hartuta, auditoreak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoreak ez du salbuespenik aipatuko izakinen arloan.

5. HORNITZAILEEI BAIEZTAPENEN ARIKETA

BOS, SA. enpresak papergintza artikuluen salerosketa jarduera du. Erosketak eta ordaintzeko kontuen eremuak auditatu behar ditugu. 2013/12/31 data duen ekitaldian honako informazioa jaso dugu:

Kontzeptua	Zor	Hartzeko	Saldoa
(400.1) Baga, SA.	10.000	16.000	-6.000
(400.2) Biga, SA.	105.500	135.500	-20.000
(400.3) Higa, SA.	9.400	19.750	-10.350
GUZTIRA HORNITZAILEAK			-36.350

Oharra: saldoaren ikur negatiboak hartzekoduna dela adierazten du.

Aurreko saldoak aztertu ondoren ondorengo informazioa lortu dugu hornitzaileekin egindako baieztapen zuzenen ondorioz:

- Baga, SA.k erantzun du 2013/12/31ean BOS, SA enpresak 13.400€ zor dizkiola. Auditoreak egiaztatu ahal izan du 2013/12/29an enpresak bidali zuela 7.400 €ko zenbatekodun txekoa zorraren zatia ordaintzeko, beraz diferentziaren arrazoia auditoria datan hornitzaileak oraindik txekoa jaso ez izana dela.
- Biga, SA.k baieztatu du bere erregistroen arabera BOS, SA.k zor dion zenbatekoa 15.200€koa dela. Diferentziaren arrazoia hornitzaileak emandako bolumenagatik deskontuan egon daiteke, izan ere 2013/12/27 datan hornitzaile honek 4.800 €tako rappela eman dio eta enpresak kontabilizatu gabe dauka.
- Higa, SA.k erantzun du ekitaldi itxieran BOS, SA. enpresak zor diona 12.350€koa dela, adieraziz enpresak emandako saldoaren diferentzia azkeneko fakturaren zenbatekoan dagoela. Higa, SA. hornitzaileak azkeneko entrega 2013/12/29an bidali omen dio eta enpresak ez ditu oraindik jaso, ezta 2.000€ (+%21 BEZ)ko erosketa faktura. Hala ere, BOS, SA.k onartu du eskaera abenduan egin zuela eta erosketa irizpidea "jatorria" dela, hau da, hornitzailearen bidalketa data.
- Enpresaren hasierako izakinek 22.000€-ko kostua dute eta ekitaldia amaitu ondoren biltegian zenbatu dituen izakinak kontuan hartuta 29.500€ko bukaerako izakinak erregistratu ditu.

ESKATZEN DA. Hau guztia kontuan izanik, auditorearen lan paperak prestatu enpresari doikuntza eta birsailkapen proposamenak egin ahal izateko.

Kontua	Zehaztapena	ENPRESA	AUDITOREA	DOIKUNTZA	AZALPENAK
400.01	Baga hornitzailea	(6.000,00)	(6.000,00)	-	Ados enpresaren saldoarekin
400.02	Biga hornitzailea	(20.000,00)	(15.200,00)	4.800,00	(1)Bolumen deskontua falta da
400.03	Higa hornitzailea	(10.350,00)	(12.770,00)	(2.420,00)	(2) Erosketa falta da eta (3) biltegian doikuntza egin behar da.

Doikuntza idazpen proposamena:

Zkia.	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	400.02 Hornitzailea 609. Erosketen gaineko "rappelak"	4.800,00	4.800,00
2	600. Salgai erosketak 472. O.P jasandako BEZ 400.03 Hornitzailea	2.000,00 420,00	2.420,00
3	300. Salgaiak 610. Salgai izakinen aldaketa	2.000,00	2.000,00

Balantzeko saldoen egiaztapena:	400. hornitzaileak	300. Salgaiak
Liburuetako saldoa 2013/12/31ean	(36.350,00)	29.500,00
<u>Doikuntzak</u>	<u>2.380,00</u>	<u>2.000,00</u>
Saldo doitua	(33.970,00)	31.500,00
<u>Saldoa auditorearen iritziz</u>	<u>(33.970,00)</u>	<u>31.500,00</u>
Diferentzia	0,00	0,00

ONDORIOAK: Hornitzaileen baieztapen (zirkularizazio) agirien azterketa eta inbentario fisikoa kontuan hartuta, auditoreak egiaztatu du 2013/12/31ean Hornitzaileen saldoak 33.970,00€ izan behar duela eta Salgaiak 31.500 €. Enpresak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoreak ez du salbuespenik aipatuko.

INBERTSIO-FINANTZAKETA ZIKLOA

6. IBILGETU MATERIALA: ERAIKUNTZAK

Ondoren ematen den Ibilgetuaren informazioaren arabera, planteatu itzazu egin beharreko doikuntza eta birsailkapenak X3/12/31ean.

(211) Eraikuntzak

Data	Kontzeptua	Zenbatekoa
X3/01/01	Inspekzio eta planoen altxamendu gastuak	1.000
X3/01/02	Lurren erosketa (1.oharra)	45.000
X3/01/07	Eraikinen eraispin (botatze) lanak (1.oharra)	1.500
X3/01/08	Lur mugimendua eta saneamendu gastuak	2.000
X3/01/15	Gastu juridikoak (2.oharra)	2.000
X3/01/16	Eraikuntza obraren 1go ziurtagiria	30.000
X3/03/15	Eraikuntza obraren 2. ziurtagiria	15.000
X3/06/05	Eraikuntza obraren 3. ziurtagiria (3.oharra)	20.000
X3/07/02	Aseguru gastuak	500
X3/07/30	Tributuak (herri zerga)	200
X3/10/01	Beste eraikinen eskuratzea (4.oharra)	300.000
X3/12/06	Eraikinean hainbat konponketa	2.000
	GUZTIRA	419.200

(2811) Eraikuntzen amortizazio metatua

Data	Kontzeptua	Zenbatekoa	Metatua
X3/12/31	Amortizazio zuzkidura	8.384,00	8.384,00

Informazio gehigarria:

(1) X3/01/2an, enpresak eraikin bat erosi du egoitza soziala bertan kokatzeko asmotan. Ordaindutako zenbatekoa 45.000€. Eraikinen botatze lanak 4.500€ suposatzen dizkiote baina obra-hondakinen salmenta dela eta 3.000€ berreskuratu ditu.

(2) Gastu juridikoen zenbatekoa ondorengo kontzeptuek osatzen dute:

Lurraren eskuratze kontratua = 500€

Eraikitze kontratuaren prestaketa = 1500€

(3) X3/06/05an, eraikina erabiltzeko prest dago.

(4) X3/10/01en erositako eraikinaren balioan, lurraren balioa 75.000 €tako da.

Oharra: Eraikinen bizi erabilgarria 50 urtetakoa da.

ESKATZEN DA:

1. Ibilgetuaren balorazioa aztertu.
2. Doikuntza idazpenak proposatu, akats eta irregulartasunak esanguratsuak direla ondorioztatuz.
3. Enpresaren Ibilgetuaren saldoa zein den adierazi

IBILGETUAREN BALORAZIO ARIKETA EBAZPENA

IM1: Eraikuntzen balorazioa (211.)					
Data	Kontzeptua	ENPRESA	AUDITOREA	dif.X3	Doikuntzak /Birsailkapena
X3/01/01	Planoen gastuak	1.000	0	-1.000	(1) Birsailkatu: Lurrak
X3/01/02	Lurren erosketa	45.000	0	-45.000	(2) Birsailkatu: Lurrak
X3/01/07	Eraikinen botatze lanak(1)	1.500	0	-1.500	(3) Birsailkatu: Lurrak
X3/01/08	Saneamendu gastuak	2.000	0	-2.000	(4) Birsailkatu: Lurrak
X3/01/15	Gastu juridikoak (2)	2.000	1.500	-500	(5) Birsailkatu: Lurrak
X3/01/16	Obraren 1go ziurtagiria	30.000	30.000	0	Ados
X3/03/15	Obraren 2.ziurtagiria	15.000	15.000	0	Ados
X3/06/05	Obraren 3.ziurtagiria	20.000	20.000	0	Amortizazioa hasi
X3/07/02	Aseguru gastuak	500	0	-500	(6) Aseguru gastu
X3/07/30	Tributuak	200	0	-200	(7) Beste tributuak
X3/10/01	Eraikinen eskuratzea	300.000	225.000	-75.000	(8) Lurrak
X3/12/06	Eraikinean hainbat konponketa	2.000	0	-2.000	(9) Konponketa
GUZTIRA		419.200	291.500	-127.700	

Zkia	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	210. Lurrak 211. Eraikuntzak	1.000	1.000
2	210. Lurrak 211. Eraikuntzak	45.000	45.000
3	210. Lurrak 211. Eraikuntzak	1.500	1.500
4	210. Lurrak 211. Eraikuntzak	2.000	2.000
5	210. Lurrak 211. Eraikuntzak	500	500
6	625. Aseguru gastu 221. Eraikuntzak	500	500
7	631. Beste tributuak 211. Eraikuntzak	200	200
8	210. Lurrak 211. Eraikuntzak	75.000	75.000
9	622. Konponketa gastuak 211. Eraikuntzak	2.000	2.000

IM2: Eraikuntzen amortizazioa aztertu. Eraikuntzen bizitza erabilgarria: 50 urte

2811.	Kontzeptua	ENPRESA	AUDITOREA	dif. X3
X3	Amortizazio zuzkidura	8.384,00	1.900,83	-6.483,17

2811.	Amortizatze aktiboa S/A	urteko amort. kuota	urte kop.	amort. metatua
1 eraik	66.500	1.330,00	0,58	775,83
2 eraik	225.000	4.500,00	0,25	1.125,00
				1.900,83

Doikuntza proposamena:

Zkia	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
10	2811. Eraikuntzen amortizazio metatua	6.483,17	
	681. Eraikuntzen amortizazioa		6.483,17

BUKAERAKO SALDOEN EGIAZTAPENA	221. (Ref.IM1)	281.1 (Ref.IM2)
Kontabilitate liburuetan X3.12.31	419.200,00	8.384,00
Doikuntzak	(127.700,00)	(6.483,17)
Saldo doitua	291.500,00	1.900,83
Saldoa auditoreak	291.500,00	1.900,83
Diferentzia	0,00	0,00

ONDORIOAK: Ibilgetuaren azterketa kontuan hartuta, auditoreak egiaztatu du 2013/12/31ean Eraikuntzen kostuak 291.500,00€ izan behar duela eta Amortizazio metatua 1.900,83 €. Enpresak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoreak ez du salbuespenik aipatu.

7. TRUKAKETA

ZAZPI,SA. enpresaren ondorengo informazioa duzu:

A.- 213.0x: Makineria kontuaren zehaztapena:

Data	Kontzeptua	Zor	Hartzeko	Saldo metatua
200x-1/01/02	213.01 Makina A erosi	1.350.000		1.350.000
200x/01/04	213.02 Makina B erosi	500.000		1.850.000
200x/06/30	213.02 Makina B; trukaketa irteera		500.000	1.350.000
200x/06/30	213.03 Makina C; trukaketa sarrera	500.000		1.850.000

B.- 281.3: Makineriaren amortizazio metatua kontuaren zehaztapena:

Data	Kontzeptua	Zor	Hartzeko	Saldo metatua
200x-1/12/31	200x-1 ekitaldian A makina zuzkidura		135.000	-135.000
200x/12/31	200x ekitaldian A makina zuzkidura		135.000	-270.000
200x/12/31	200x ekitaldian B makina zuzkidura		25.000	-295.000
200x/12/31	200x ekitaldian C makina zuzkidura		25.000	-320.000

C.- Trukaketa idazpena. 200xko ekainaren 30ean B makina trukatu egin da C makina jasoz eta erakundeak idazpen hau egin du egunkaria liburuan:

Zkia	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	213.02. Makineria	500.000,00	
	213.03. Makineria		500.000,00

D).- Bestelako informazioa:

* C makinaren balorazio fidagarria eskatu da trukaketa datan eta 410.000 € dela jakin da.

* Makinaren bizitza erabilgarria 10 urtetakoa da eta %10ko koefiziente linealean amortizatzen da eskuratu den momentutik.

ESKATZEN DA: Auditorearen arabera 200x/12/31n egin beharreko doikuntza eta birsailkapenak adierazi, **bukaerako saldoak zeintzuk diren azpimarratuz.**

TRUKAKETA ARIKETAREN EBAZPENEA

Makinaren balorazioaren azterketa:

Data	Zehaztapena	ENPRESA	AUDITOREA	Dif.
200x-1/01/02	213.01 Makina A erosi	1.350.000	1.350.000	--
200x/01/04	213.02 Makina B erosi	500.000	500.000	--
200x/06/30	213.02 Makina B; trukaketa irteera	(500.000)	(500.000)	--
200x/06/30	213.03 Makina C; trukaketa sarrera	500.000	410.000	(1) (90.000)
		1.850.000	1.760.000	(90.000)

Makinaren Amortizazio Metatuaren azterketa:

Amortizazio irizpidea: %10ko koefiziente lineala

Data	Elementua	Balio amortizagarria	Funtz. urteak	ENPRESA	AUDITOREA	Dif.
200x/12/31	281.31 Makina A	1.350.000	2	270.000	270.000	--
200x/12/31	281.32 Makina B	500.000	0.5	25.000	--	(1) (25.000)
200x/12/31	281.33 Makina C	410.000	0.5	25.000	20.500	(2) (4.500)

Makinaren trukaketari dagokionez, trukaketa komertziala den ala ez aztertu behar da, eta dagokion balorazio irizpidea aplikatuko da. Kontabilitate Plan Orokorra zera adierazten du:

“Trukaketa komertziala dela ulertuko da, baldin eta:

a) Hartutako ibilgetuaren diru-fluxuen konfigurazioa (arriskua, egutegia eta zenbatekoa) eta emandako aktiboaren diru-fluxuen konfigurazioa desberdinak bada, edo

b) Trukaketak ukitutako enpresa-jardueren diru-fluxuen balio eguneratua, zergen ondoren, aldatu egiten bada eragiketaren ondorioz.

Gainera, beharrezkoa da aurreko a) edo b) arrazoiengatik sortutako diferentzia esanguratsua izatea, truketutako aktiboen arrazoizko balioarekin konparatuta.

Kasu hauetan, hartutako ibilgetu materiala baloratuko da entregatutako aktiboaren arrazoizko balioan eta, halakorik dagoenean, aktiboaren truke emandako diruaz. Baldin eta trukean jasotako elementuaren arrazoizko balioa argiagoa bada, hau erabiliko da (muga). Trukean emandako elementuari baja ematean sor litezkeen balorazio-diferentziak, galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira.

Beste kasuetan trukaketa ez-komertziala izango da. Trukaketa komertziala ez denean edo eragiketan parte hartzen duten elementuen arrazoizko balioaren estimazio fidagarririk lortu ezin denean, hartutako ibilgetu materiala baloratuko da emandako ondasunaren kontabilitate-balioan, horri gehituta, halakorik dagoenean, trukean dirutan emandako kontrapartidak; hartutako ibilgetuaren arrazoizko balioa eskuragarri badago, eta txikiagoa bada, balio hori izango da muga”.

Arketa honetan ez dio hainbeste axola bata edo bestea izan, zeren hartutako C makinaren balio fidagarria 410.000 da eta emandako B makinaren kontabilitate balioa (500.000-25.000= 475.000) baino txikiagoa izanik, balorazio txikiago hori muga da. 65.000 €ko galera isla behar da.

Doikuntza idazpenaren proposamena:

Zkia	Zehaztapena	Zor	Hartzeko
1	213.03 Makina C		90.000,00
	281.32 Makina B Amortizazio metatua	25.000,00	
	671. ibilgetu materialetik sortutako galera	65.000,00	
2	281.33 Makina C Amortizazio metatua	4.500,00	
	681.33. Makina C amortizazioa		4.500,00

ONDORIOAK: Ibilgetuaren azterketa kontuan hartuta, auditoreak egiaztatu du 2013/12/31ean A makinaren kostua 1.350.000 € dela, eta C makinarena 410.000 €, Amortizazio metatuak 270.000 € eta 20.500€ hurrenez hurren. Enpresak proposatutako doikuntza idazpenak burutuz gero, auditoreak ez du salbuespenik aipatuko.